

Lanaldia murrizteko proposamena: langile-klasearen garaipena ala burgesiaren egokitzapena?

Aitor Tena Eizagirre
Euskal Herriko Unibertsitateko ikaslea, UPV/EHU

Artikulu honetan, azken hilabeteetan zeresan handia ematen ari den lanaldi-murrizketaren proposamena aztertu da. Besteak beste, neurri horrek zer beharri erantzuten dion, zer funtzio bete ditzakeen eta zer logika duen ikertu da. Horretarako, esperientzia historikoetan oinarritu gara: Britainia Handia, Alemania, Frantzia... Esperientzia horiek aztertu ostean, ondorioztatu da kapitalistek eta langileek lanegunaren iraupenari dagokionez kontrajarritako bi ikuspegi adierazten dituztela, eta interesen arteko lehia horretan laneguna noraino luzatuko den indarrak erabakitzen duela. Marxek zioen lanaren intentsifikazioaren eta makineriaren perfektionamenduaren ondorioz puntu kritiko batetik gertuago egongo zela kapitala, eta lanegunaren beste murrizketa bat ekarriko zuela; artikuluan, puntu kritiko horren aurrean sortzen ari diren erreakzioetan kokatzen da lan-astea 32 ordura murrizteko proposamena.

GAKO-HITZAK: Lanaldi-murrizketa · Más País · Laneguna · Egokitzapena.

A proposal to reduce the working hours: the victory of the working class or the adaptation of the bourgeoisie?

In this article, a proposal for a reduction in the working hours, which has been going on in recent months, it's been examined. Among other things, we have found the necessity to investigate for this measure, its functions, and its logic. To that end, it's based on historical experiences: Britain, Germany, France. After studying these experiences, it has been concluded that capitalists and workers express two contrary views on the duration of the working day, and that in this competition between interests, strength determines how far the working day will be extended. Marx said that due to the labor intensive and the machine 's modernization the capital would be closer to a critical point, which would lead to a new reduction in the working hours. In the article, a proposal to reduce the working week to 32 hours is included in the reactions that are arising in the face of this critical point.

KEY WORDS: Reduction of the working hours · Más País · Working day · Adaptation.

1. Sarrera

2021eko Estatuaren Aurrekontu Orokorren (EAO) negoziazioan atzera bota zen arren, 2021eko martxoan Espainiako Gobernuak onartu egin zuen Más País alderdiak asteko lanaldia lau egunera —edo 32 ordura— murrizteko egin zuen proposamena. Dirudienez, proiektu pilotu hori finantzatzeko akordioa jada adostuta zegoen. Zehazki, adierazitakoaren arabera, errekupeziarako Europako funtsetatik 50 milioi euro bideratzea onartu zen lan-erregimen berria probatzen duten enpresei laguntzeko (Deutsche Welle, 2021). Hala ere, 2021eko uztailan argitaratutako hainbat albistek diote Gobernuak 2022ra atzeratuko duela Errejonen alderdiaren proposamena eta ez dela europar funtsekin finantzatuko, hasieran erabaki zen bezala. Gobernuaren ideia 2022ko EAOetan txertatzea izango litzateke (El Economista, 2021; Gil, 2021).

Más País ez da, ordea, neurri horren aldeko apustua egin duen antolakunde bakarra. Besteak beste, Espainako Estatuan UGT sindikatua edo Ecologistas en Acción aipa ditzakegu lanegunaren murrizketaren babesleen artean (Tejero, 2021). Euskal Herriko kasuan, LAB sindikatuak denbora luzea darama 35 orduko lanaldia eta 1.200 euroko gutxieneko soldata defendatzen (García, 2016), baina 2021eko otsailan eskaeretan «beste urrats bat» egin eta «haratago begiratzeko garaia» dela adierazi zuen: 30 orduko lan-astea eta 1.400 euroko soldata aldarrikatzearen aldeko apustua egin zuen (Magro, 2021).

Oraindik ziurtasun osoz proposamena noiz aplikatuko den jakin ezin den arren, lanaldi-murrizketaren auziari buruzko hainbat ideia mahai gaineratu nahi nituzke artikuluan honetan, 2021eko apirilean Twitterren idatzi nuen hari bat oinarri gisa hartuz¹. Oso garrantzitsua iruditzen zait neurri horrek zer beharri erantzuten dion, zer funtzio bete ditzakeen eta zer logika duen aztertzea, baita historian zehar izandako eztabaidetatik zein esperientzietatik ikastea ere.

2. Aurrekari historikoak

Quienes se opusieron hace 100 años a la jornada de 40h se oponen hoy a las 32h: los que quieren que nada avance.

Íñigo Errejón

Artikuluari hasiera emateko, gaur egun Más País alderdiak zein beste hainbat antolakundek proposatzen duten lanaldi-murrizketaren neurriaren aurrekari historikoak errepasatuko ditut modu labur batean, gehiegi luzatu gabe.

Lehenengo aurrekarietako bat Britainia Handian kokatzen da. 1874an Manchesterreko hainbat epailek haurren lanaren erregulazioari buruzko sententzia bat argitaratu zuten, gaueko lana debekatuz eta eguneko lana 12 ordura mugatuz (Rivas, 2010). Garai horretan, Ingalaterran, Robert Owen enpresari eta sozialista utopikoak *New Lanark* kooperatiban praktikan jarri zituen lanaldia murrizteko neurriak. Haren esperientzian oinarrituta dago Ginebrako Nazioarteko Kongresuko «formula famatua»: 8 lanordu, 8 ordu aisiarako, 8 ordu atsedenerako (Jódar, 2021).

1. <https://twitter.com/tenaeiz/status/1381313191855132674?s=20>

Urte batzuk geroago, Zetkin-ek 1899an Parisko Nazioarteko Kongresuan 8 orduko lanegunaren inguruan izandako eztabaiden harira, ondorioztatu zuen aldarrikatutako erreformak ez zirela inolaz ere langile-mugimenduaren azken helburuak, iraultza soziala erdiesteko bitartekoak baizik. Izan ere, haren hitzetan, erreformek langile-klasearen egoera hobetu dezaketen arren, «ez dira nahikoa kapitalismoa zapaltzeko eta langileak haren tiraniatik askatzeko» (Zetkin, 1899).

Ingalaterran XIX. mendean jada lanaldia murrizteko lehenengo pausoak eman baziren ere, hainbat urte igaro behar izan ziren beste herrialdeetan errealtate bihurtu arte. Espainia 8 orduko laneguna ezarri zuen munduko lehen herrialdeetako bat izan zen, 1919an, Bartzelonan CNT sindikatuak aurrera eramandako borrokaren ondorioz (Tejero, 2021). Hala ere, ez zuen denbora luzean iraun, Gerra Zibilaren ostean bertan behera geratu baitzen langile-mugimenduaren lorpen hori, beste hainbaten artean, 1983an 40 orduko lan-astea ezartzea lortu zen arte (Jódar, 2021).

Bigarren Mundu Gerraren ostean, mundu-mailako sindikatuek, oro har, lanaldiaren murrizketaren gaia alde batera utzi zuten (Imaz, 2007). Urte batzuk geroago, ordea, 1970eko hamarkadako krisiak eraginda lanaldi-murrizketaren aldarria berreskuratzen hasi ziren sindikatuak, lana banatzearen proposamenarekin batera; garai horretakoa da, zehazki, «*lavorare meno, lavorare tutti*» lema famatua (Jódar, 2021). Besteak beste, IG Metall sindikatu alemaniarraren borroka aipa dezakegu; izan ere, 1978an 35 orduko lanaldia eskatzen hasi zen eta, «Bigarren Mundu Gerra ondorengo greba luzeenari esker», metalgintzako sektorearentzat sei asteko oporrak eta 38,5 orduko lan-astea lortu zituen 1984an (Imaz, 2007).

Beste adibide esanguratsu bat, dudarik gabe, Frantziakoa izango litzateke. Astaritak azaltzen duenez, Frantziako kasua *labor sharing* politikaren barruan kokatzen da, lanaldia 35 ordura murriztuz langabezia jaistea baitzen helburu nagusietako bat. Neurri hori, ordea, gradualki aplikatu zen. Hasteko, 1981ean lanaldia 39 ordura murriztu zen; ondoren, 1996an, lan-denbora % 10 eta % 15 artean murrizteko borondatezko eskaerak sustatzen zituen legea onartu zen; azkenik, 1997an ezkerria gobernura berriro iritsi zenean, 35 orduko lanaldia proposatu zen langabezia jaisteko neurri bezala (Astarita, 2017b).

Amaitzeko, Finlandiako kasua aztertuko dugu. Esan genezake azken urteetan lanaldiaren murrizketa agenda mediatikoaren erdigunean berriro jarri duen ekimena izan dela Finlandiakoa. 2020ko urtarrilean zenbait albistegi ireki zituen 2019ko udan Finlandiako lehen ministroak asteko lanaldia lau egunetara murrizteko egindako proposamenak. Hala ere, Sanna Marin-en gobernuak adierazi zuen oraingo ez zuela aurrera eramateko planik. Horren harira, hainbat komunikabidek ezagutzera eman zuten Espainiako Estatuan egitasmo hori errealtate bihurtu zuen lehenengo enpresa, Jaeneko probintzian kokatuta dagoena, Software DELSOL izenekoa (Tena, 2020).

Datozen urteetako joera lanaldia murrizten jarraitzea izango dela aurreikus daitekeen arren, posible da zenbait salbuespen egotea. Adibide esanguratsuena ziurrenik Greziako kasua izango da. Izan ere, 2021eko maiatzean Kyriakos Mitsotakis-en gobernuak laneguna 10 ordura luzatzeko erreforma proposatu zuen

(Sabata, 2021). Hala ere, nire iritziz, hori besterik ez da izango: salbuespena, eta ez joera orokorra. Izan ere, kontuan hartu behar dugu Greziarena «produktibitate gutxiko» ekonomia dela eta, beste herrialde batzuetan ez bezala, burgesiak irabaziak handitzeko duen aukera bakarra plusbalio absolutua handitzea dela, besteak beste, lanaldia luzatuz (Castillo, 2021).

3. Interesen arteko lehia

De modo que el capitalista y el obrero, en relación con la duración de la jornada de trabajo, representan, ambos en el terreno del mercado de las mercancías, dos puntos de vista exactamente contrapuestos, y la duración efectiva de la jornada, por consiguiente, sólo se fija a través de la lucha entre la clase capitalista y la clase obrera, como una relación de fuerzas.

Rosa Luxemburgo – *Introducción a la economía política*

Orain arte azaldu dugun bezala, lanaldia murriztearen aldeko borroka ez da berria. Duela mende bat inguru 8 orduko laneguna eta 40 orduko lan-astea onartu ziren, langile-mugimenduaren baitako hainbat eztabaidaren emaitza izan ziren aldarrikapenen ondorioz. Burgesia, alde batetik, laneguna modu neurrigabean luzatzen ahalegindu zen kapitalismoaren sorreran, hau da, plusbalio absolutua handitzen. Lanegunaren luzapenak gizartean erreakzio bat sortu zuen aurrerago eta, horrekin lotuta, lanegun arruntaren erregulazio edo mugatzea. Astaritik azaltzen duen moduan, interesen arteko lehia horretan laneguna noraino luzatuko zen erabakiko zuena indarra izango zen: «klase-borroka» (Astarita, 2017a). Hau da, lanegunak izatez ez du muga jakinik, leku eta garai bakoitzean desberdina izango da, «indar-erlazioaren arabera» (Luxemburgo, 1974: 192-193).

Luxemburgok zioenez, kapitalistek eta langileek lanegunaren iraupenari dagokionez kontrajarritako bi ikuspegi adierazten zituzten. Hala ere, haren hitzetan, laneguna murrizteko edota erregulatzeko legeak sustatzeko ekimena kasu askotan ez zen langileen partetik etorri, kapitalisten partetik baizik (Luxemburgo, 1974: 193). Errejónek Espainiako Diputatuen Kongresuan egindako prentsaurreko batean zioen duela 100 urte 40 orduko lanaldiaren aurka zeudenak («ezerk aurrera ez egitea nahi dutenak») direla gaur 32 orduko lan-astearen kontra daudenak (Más País, 2021). Baieztapen horrekin, ez dago dudarik, burgesiari edo, *jerga* populista erabiliz, «oligarkia handiei» egin nahi die aipamena politikari espainiarrak, baina Luxemburgoren hitzak aztertzen baditugu ohartuko gara kasu batzuetan horrela izan zen arren, beste kasu askotan enpresariak sustatutako neurria izan zela lanaldiaren murrizketarena (Luxemburgo, 1974: 193-195). Ezin dugu ahaztu neurri sozialak «gutziz bateragarriak» direla sistema kapitalistarekin eta, gainera, haren «biziraupenerako baldintza» izan daitezkeela kasu askotan (Mélis, 1937). Luxemburgok zioenarekin jarraikiz, ez ziren besterik gabe, intentzio onarekin, langileen bizimodua hobetzeko hartutako neurriak, gizarte kapitalistaren biziraupena bermatzeko asmoz hartutako neurriak baizik, Erdi Aroaren amaieran sustatu zen mugaririk gabeko produktzioak milaka hildako, zauritu eta elbarri ekarri baitzituen (Luxemburgo, 1974: 195).

Neurri horiek onartu ziren testuinguruan, beraz, berebiziko garrantzia hartu zuen lanaren intentsifikazioak. Izan ere, momentu horretatik aurrera ezinezkoa bihurtu zen plusbalio gehiago produzitzea lanegunaren luzapenaren bitartez eta, beraz, kapitalak bere indar guztiak bideratu zituen, kontzienteki, plusbalio erlatiboa produzitzera makineriaren garapenaren bitartez; hau da, langileek gehiago produzitzea lan-gastu berdinarekin eta denbora-tarte berdinean. Lanegunaren murrizketak denbora berdinean lanaren gastu handiagoa dakar berekin; hau da, lana kondentsatu egiten da. Prozesu horretan, paper oso garrantzitsua jokatzen du makinak; izan ere, «denbora-tarte berdinean lan gehiago erauzteko bitarteko objektiboa» da, sistematikoki jarduten duena (Marx, 1979: 502).

4. Puntu kritikora heldu gara

No cabe la mínima duda de que la tendencia del capital no bien la ley le veda de una vez para siempre la prolongación de la jornada laboral, a resarcirse mediante la elevación sistemática del grado de intensidad del trabajo y a convertir todo perfeccionamiento de la maquinaria en medio para un mayor succionamiento de la fuerza de trabajo, pronto hará que se llegue a un punto crítico en el que se volverá inevitable una nueva reducción de las horas de trabajo.

Karl Marx – *El Capital* (XIII. kapitulua)

Txertatutako esaldi horretan, Marxek azaltzen du kapitalak lanaren intentsifikazioa eta makineriaren perfektionamendua handitzen dituen heinean lan-indar kantitate handiena xurgatu ahal izateko, geroz eta gertuago egongo dela puntu kritiko batera heltzeko; izan ere, haren esanetan, horrek lanorduen beste murrizketa bat ekarriko luke (Marx, 1979: 509). Esan genezake puntu kritiko horretara heltzen ari garela eta, horren aurrean, erreakzioak sortzen ari direla gizartean. Horietako bat, dudarik gabe, lan-astea 32 ordura murrizteko proposamena izango litzateke, zeina espermentaziorako proiektu pilotu gisa identifika daitekeen.

Egia da azken hilabeteetan hainbat argumentu aipatu izan direla proposamen hori babesteko: denbora librea, eragin ekologikoa, parte-hartze demokratikoa, osasun mentala... Hala ere, etengabe beste argumentu bat erabiltzen dute neurria justifikatzeko: produktibitatea. Izan ere, argi dago neurri horren helburu nagusietako bat produktibitatea handitzea izango litzatekeela (Álvarez, 2021), kapitalaren modernizazioa bermatzeko asmoz. Héctor Tejero Más Madrideko diputatu eta Más Paíseko koordinatzaile politikoaren hitzetan, lanaldiaren murrizketak enpresen produktibitatea igo dezakeela uste da, eta Más Paísek sustatutako proiektu pilotuaren helburu nagusietako bat hazkunde hori zer baldintza, sektore eta enpresatan gertatzen den aztertzea da (Tejero, 2021). Gainera, Tejerok dio enpresak konbentzitu behar direla lanaldi-murrizketa ona dela haientzat; haren ustez «ez da dekretuz arautu behar», egokiagoa litzateke lehen «aldaketa kultural bat egotea hura babesten duen jendearekin» (Álvarez, 2021).

Reducir la jornada para ensanchar el futuro erreportajeaz azaltzen denez, Islandian lan-astea lau egunera eta gehienez 35 ordura murrizteko egindako esperimenduaren emaitzen arabera, «produktibitatea askoz ere handiagoa da, langileak motibatuago daude beren lanpostuekin eta langabeziak nabarmen egin du behera». Bestetik, aipatzen da Microsoftek lanaldia lau egunetara mugatu zuela bere egoitza japoniarrean, eta bere langileen produktibitatea % 40 igo zela baieztatu zuela, energia-kontsumoa % 25 murrizteaz gain. Gainera, Software DELSOL enpresak aitortu du bi urtean 180 langileko plantillan 20 lanpostu berri sortu dituela eta produktibitatea handitu duela; horrez gain, «langileek enpresaren helburuekin duten inplikazioa» areagotu egin dela diote. Enpresaren hitzetan, horrek beste «onura» batzuk ditu, esate baterako, absentismoa murriztu egiten da, errendimendu handiagoa lan egindako orduetan, langileak motibatuago daude... (Álvarez, 2021).

Ohiko argumentuen artean erabilienetako bat da lanaldiaren murrizketak aberastasuna handitu duela eta langileen bizi-baldintzak hobetu dituela. Ezin daiteke ukatu etapa horrek kointziditu egin duela produktibitatearen hobekuntzarekin, baina beste faktore ugari aztertu behar dira. Astaritak, esaterako, Frantziar lanaldi-murrizketak izan zuen eragina aztertzeke garaian (adb. langabeziaren bilakaera) krisi ekonomikoa izan duten urteak errekupezioko urteekin alderatzen ditu. 1996-2016 arteko OECDren datuak kontuan izanik, azaltzen du langabeziak nabarmen egin zuela gora 2001eko atzeraldiarekin eta 2007ko krisialdi ekonomikoarekin batera. 1996 eta 2011 artean, ordea, jaitsi egin zela nabarmen du (Astarita, 2017b).

Gainera, aberastasuna handitu eta bizi-kalitatea hobetu arren, posible da produzitutako aberastasunaren proportzio txikiagoa eskuratzea langileriak. Ondorioz, esan genezake erlatiboki pobretzen ari dela, nahiz eta soldata handiagoa izan edota horrekin merkantzia gehiago erosi. *Soldata erlatiboak* gizartearen produzitutako aberastasunetik langileriak eskuratzen duen proportzioa adierazten du, burgesiak jasotzen duenarekin alderatuta (Luxemburgo, 1974: 206). Heinrichek dioen moduan, kontuan hartu behar dugu orain dela urte batzuetatik hona bizi-baldintzak hobetu edo lanaldia murriztu izanak ez duela adierazi nahi esplotazioa gutxitu edo desagertu denik. Esplotazioa terminoarekin, ordea, ez dio erreferentzia egiten baldintza «txar eta miserableei», langileek soldata forman jasotzen dutena baino gehiago produzitzeari baizik (Heinrich, 2018). Horrez gain, Marxek *Trabajo Asalariado y Capital* testuan zioen «langileentzako egoerarik onuragarrienak ere», nahiz eta baldintza materialak hobetu, ez duela haien interesen eta burgesiaren interesen arteko antagonismoa ezabatzen, kontuan izan behar baitugu «soldatapeko lanaren eta kapitalaren interesak erabat kontrajarriak» direla.

Hainbat ikerketak adierazten dute baldintza materialak hobetu arren, aberastasun osoaren geroz eta proportzio txikiagoa duela langile-klaseak, hau da, pobretzen ari dela. *El País* egunkarian 2018an argitaratutako erreportaje batean, Viñasek zioen «susperraldi ekonomikoa errealtate bat» zela, Espainia hiru urtez jarraian % 3tik gora hazi zela kontuan izanik. Hala ere, hobekuntza ekonomikoa «hiritar guztiengana» iritsi ez zela zioen. Haren hitzetan, hori argi eta garbi adierazten zen langabeziari buruzko datuetan, baina baita «soldatek aberastasun osoan duten

garrantziaren galeran» ere. Gainera, testuan aipatzen da aberastasunean pisu galtzea, INEren 2017ko datuen arabera, Espainian ordaindutako soldata guztien baturak —kotizazioak barne— % 3,3 gora egin zuen garaian gertatu zela. Soldaten batura handiagoa izan arren, ekonomia osoan zuten pisua BPGaren % 47,3 arte jaitsi zen, «1989tik izandako mailarik txikienera» (Viñas, 2018).

Ondorio modura, esan genezake produktibitatea etengabe handitzen ari dela, aberastasun sozialarekin batera; langileriaren parte-hartzea, aldiz, jaisten doa. Laburbilduz, aurretik aipatu ditudan ideia guztiekin lotuta, azpimarratu nahi nuke baldintza materialen hobetzea eta aberastasunaren proportzio txikiagoa eskuratzea ez direla bi prozesu kontrajarri. Prozesu hori, zehazki, soldata erlatiboaren jaitsiera gisa definituko genuke. Bi prozesu bateragarri izateaz gain, Luxemburgok «kapitalismoaren lege sakrosantutzat» hartzen zuen, ekoizpen kapitalistak ezin baitu «urrats bat aurrera egin langileek produktu sozialean duten parte-hartzea murriztu gabe» (Luxemburgo, 1974: 207-210). Astaritak, aldiz, uste du baieztapen hori «eztabaidagarria» dela. Izan ere, azaltzen du historian zehar, denbora-tarte eta lurralde jakin batzuetan, langile-klaseak bere parte-hartzea handitu ahal izan zuela produktuan, «bere bizi-baldintzak hobetzearekin batera». Hala ere, azaltzen du epe luzean plusbalio erlatiboak gora egin duela, eta horrek agerian uzten duela Luxemburgoren tesia indarrean dagoela. Horren ondorio nagusia, haren iritziz, 1970eko hamarkadaren amaieratik gaur egunera arte ia herrialde guztietan «kapitalaren eta lanaren arteko diru-sarreraren eta aberastasunen polarizazioa» handitu egin dela izango litzateke, «soldata erreala igo bada ere» (Astarita, 2020).

Beste kasu batzuetan, gainera, soldata nominalaren igoera orokortuak soldata errealearen jaitsiera ekar dezake, «soldaten maila inflazioarekin batera igotzen ez bada» (Bartolomé, 2021). Motzean azalduta, *soldata nominala* langileak kapitalistarengandik jasotzen duen diru kantitatea izango litzateke, hau da, soldata dirutan; *soldata erreala*, aldiz, soldataren truke eskura daitezkeen merkantziak (Luxemburgo, 1974: 196). Krisia hasi zenetik «bizitzaren kostua gero eta handiagoa da»; INEren datuen arabera, 2008tik 2019ra bitartean soldatak % 1,9 jaitsi ziren, eta bizitzaren kostua % 13,7 igo zen (ABC, 2019). Del Rosalek *Los jóvenes de hoy en día* testuan jasotzen duen moduan, etxebizitzaren alokairuaren batez besteko prezioa % 44,2 igo da 2008tik 2020 bitartean, eta KPIa osatzen duten kontsumo-ondasunen prezioak % 14,8 hazi dira. 20-25 urte arteko gazteen kasuan, batez besteko soldata gordina 12.640,65 eurokoa izan zen 2019an, eta % 5 jaitsi zen 2008 urtekoarekin alderatuta (Del Rosal, 2021).

Beste helburuetako bat, aldiz, iraultza teknikoaren garapena sortzen ari den egiturazko langabeziaren arazoari behin-behineko irtenbidea ematea izango litzateke, «lana banatzea» (*labor sharing*) bezalako aldarrikapenekin. Astaritak dioenez, neurri horiekin ez da inolaz ere, «kapitalismoaren baitan», langabeziarekin amaituko, nahiz eta ezin daitekeen uka, Frantziako kasuan bezala, lanaldiaren murrizketak lanpostu batzuk sor ditzakeela (Astarita, 2017b). Nire iritziz, ondorioak «amortiguatzea» (leuntzea, arintzea) edo, gutxienez, horien agerpena atzeratzea bilatuko lukete.

Kolitzak aipatzen duen moduan, esan genezake kapitalismoa mututzen ari dela «trantsizio-bidean dagoen beste gizarte-eraketa batera». Hala ere, argitu beharra dago ekoizpen kapitalista oraindik ez dela desagertu, baina bere «rol hegemonikoa» galtzen ari dela. Arazoaren oinarria, haren hitzetan, giza lan biziak ekoizpenaren esparruan zentraltasuna galtzean egongo litzateke eta, aldi berean, paraleloki, teknologiak irabaztean (Kolitz, 2020). Hau da, kapitalaren oinarri ekonomikoa, plusbalioaren ekoizpenean oinarritzen zena, desagertzen ari da. Egoera honetan, robotikak eta adimen artifizialak talka egiten dute lan-indar bizian oinarritutako kapitalismoarekin. Izan ere, industriako makinek bere garaian neurri apalagoan egin zuten bezala, robotikan oinarritzen den ekoizpenak giza lan-indarra ez-funtsezko bilakatzeko eta berau ordezkatzeko joera du.

Aurreikuspenen arabera, geroz eta gehiago izango dira soldatapeko lanetik kanporatuak izango diren eta, ondorioz, euren integrazioa eta biziraupena arriskuan izango duten langile *superfluoak*, hau da, «zuzenean kapitalaren autobalorizaziorako beharrezkoak izango ez diren langileak» (Marx, 1979: 496-497). Hala ere, aipatu beharra dago kapa *superfluo* horiek edo «erreserbako gudaroste industrialak» kapitalarentzat baliagarriak izan direla historikoki; izan ere, alde batetik, langabezia dauden kapek soldataren gaineko presioa eragiten dute eta, bestetik, metaketaren gehikuntza-kasuetarako erreserba bat osatzen dute, izenak berak dioen bezala (Luxemburgo, 1974: 201). Pandemiaren testuinguruan, esaterako, argi ikusi da lehenengo funtzio hori nola gauzatzen den; izan ere, burgesiak pandemia baliatu du lanaren berrantolaketa azkartzeko eta, gainera, lanik gabe geratu den biztanleria erabili dute aktibo daudenen soldatetan beherezko presioa egiteko. Bigarren funtzioa, aldiz, irudikatzen geroz eta zailagoa da gaur egungo testuinguruan; izan ere, Niño-Becerrak Twitterren azaltzen zuen gisara, soberan dagoen biztanleria aktiboa gorantz doa, lanordu gutxiago behar baitira. Haren esanetan, gainera, geroz eta gutxiago beharko dira (Niño-Becerra, 2020).

Marxek *Trabajo asalariado y capital* testuan azaltzen du langileak ezinbestekoa duela bere lan-indarra saltzea bizirauteko behar dituen baliabideak eskuratzeko; azken finean, bizitzeko egiten duela lan (Marx, 1849). Lan horren xedea ez da horri esker lortuko duen amaierako produktua, gero bizitzea ahalbidetuko dion soldata irabaztea baizik. Hala ere, azpimarratu beharra dago lan-indarra ez dela beti merkantzia izan; lana ez da beti soldatapeko lana izan. Kapitalismoan, ordea, langile libreak bere burua saldu behar dio, zatika, kapitalista bati. Ez da inoren jabetza, librea da, baina kasu askotan lan-indarra haren diru-iturri bakarra izanik, ezin da kapitalisten klasetik askatu, ez badio haren existentziari uko egiten. Izan ere, kapitalismoak eskaintzen duen askatasuna «gosez hiltzeko askatasuna» ere bada (Riesco-Sanz, 2012). Balorizazio-prozesutik kanporatua izateko beldurrak erabat areagotzen du langile-klaseko kideen arteko lehia.

Niño-Becerrak, adibidez, azpimarratzen du lanpostuen galerak eta lanorduen beherakadak arazo handi bat dakartela biztanleriaren gehiengoarentzat; izan ere, orokorrean horien errenta bakarra lanaren truke jasotzen duten soldatetik dator eta, hori desagertzen bada, banaketa soziala polarizatuz joango da pixkanaka (Niño-Becerra, 2019). Haren hitzetan, «gaur egun teknologiak sortzen duen

lanpostu bakoitzeko zazpi suntsitzen ditu» eta, ondorioz, gizakiak aurrera eramaten dituen jarduera gehienak teknologiak gauzatuko dituen mundu batera goazela dio. Ekonomialari espainiarrak, etorkizuneko joerak aurreikusi nahian, adierazten du gizartearen gutxiengo bat, % 10-15 inguru, arlo profesionalean ezinbestekoa izango dela eta soldata oso altuak izango dituela; bestetik, biztanleen % 30, gutxi gorabehera, «jarduera konkretuetarako» soilik izango lirateke kontratatuak eta, gainontzeko biztanle guztiak ez lirateke beharrezkoak izango, soilik jarduera puntual eta «marjinaletarako» (Tringali, 2020).

OECDren arabera, Adimen Artifizialaren garapenak 2050erako errutinazko jarduerekin zerikusi zuzena duten mundu-mailako lanpostuen % 20 gutxienez desagertzea eragingo du; Massachusettseko Teknologia Institutuak, ordea, zifra hori % 60ra igo daitekeela aurreikusten du (León, 2018). Recioentzat, aldiz, «lanaren amaieraz» hitz egiteak «diziplinamendu sozialaren efektua» sustatzeko nahia adierazten du. Izan ere, haren esanetan, garapen teknologikoak ez du ekarri lanaren ezabapena arrazoi ugarirengatik. Irakasleak azaltzen duenez, «oraingoa desberdina izango dela esaten diguten arren», langabeziak ez du zerikusirik izan teknologiarekin, «ekonomiaren antolaketa-ereduarekin» baizik (Recio, 2018).

Corsino Velak, argitaratu berri duen *Capitalismo patológico* liburuan, azpimarratzen du gaur egungo krisi-testuinguruan lanari uko egiteak, historikoki *rechazo al trabajo* gisa ezagutu izan denak, «diziplina laboralarekiko egon izan den erresistentzia tradizionala» gainditzen duela. Idazle asturiarrak dio *rechazo* hori «ongizate-estatuetakoko proletalgo erradikalizatuak» aurrera eramandako elaborazio teorikoaren fruitua izan zela, industriaren garapenak sortutako baldintza materialen ondorioz. Gaur egun, aldiz, «kapitalaren testuinguru errezesibo» batean gaudela azpimarratzen du eta orain arte gertatukoaren kontrara, lana dela proletalgoa bazterten duena, eta ez alderantziz. Ildo horretan, liburuan azpimarratzen du oso garrantzitsua dela soldatapeko lanari kritika eguneratzea, gaur egungo testuinguruari erreparatuz (Vela, 2021).

Hala ere, beste korronte teoriko batzuen arabera, biztanleria-soberakin hori gaur egun oraindik fabeletan edo *slum*-etan dago gehienbat, baina prozesu hori periferiatik erdigunera etor daitekeela aurreikusten dute. Wertkritik² korronteko autoreek, esaterako, azken urteetan areagotzen ari den kapitalaren kontraesan bat seinalatzen dute: azpigaratutako herrialdeetan «luxuzko irlak eta teknologia berritzaileak» topatu ditzakegun era berean, garatutako herrialdeetan geroz eta ohikoagoak dira azpigaratutako eremuak, «zibilizaziotik kanpo» kokatzen direnak (Maiso, 2016b). Espainiako Estatuaren kasuan, Huelvako *temporeoen asentamenduak* edo *Cañada Real* izan litezke horren adibide garbia. Jappek joera hori «apartheid global» gisa izendatzen du. Laburbilduz, kapitalismoaren zabalkundea geroz eta txikiagoa den bitartean, haren produzitzeko gaitasuna etengabe hazten ari dela adierazi nahi du (Jappe, 2018). Horren harira, Maisok aipatzen du produkzioa «euren ingurunearekin

2. «La teoría crítica del valor —Wertkritik— es el nombre a través del cual se conoce a la lectura contemporánea de la teoría del valor de Karl Marx para analizar la sociedad actual. Esta nueva corriente del marxismo se propone retomar las categorías centrales elaboradas por Marx: el valor, el trabajo abstracto, la mercancía, el fetichismo de la mercancía, etc. con el objetivo de reconocer su actualidad, pero también sus limitaciones» (Jappe, 2018).

erlaziorik ez duten eremuetan» kontzentratzen ari dela, haren inguruan «muturreko pobrezia apaindutako paisaia grisak» utziz (Maiso, 2016b).

Argi dago, aipatu bezala, hauek oraindik etorkizuneko joera edo aurreikuspenak direla eta oraindik ez dutela errealitatean plasmazio errealik izan. Hala ere, agerikoa da Euskal Herrian ere 2008tik hona biztanleriaren polarizazioa areagotu dela. Eusko Jaurlaritzak 2018. urtean egindako Behar Sozialei buruzko Inkestan adierazten da 130.965 pertsonak pairatzen zutela *benetako pobrezia* EAEn, hau da, «pobreziaren bizipenetik aldentzeko nahikoa den gutxieneko ongizatea eskuratzea» ezinezkoa den egoera. 2008. urteko datuekin alderatuta, % 46 handiagoa da 2018ko kopurua. Benetako pobrezia sufritzen duten pertsona horiez gain, 446.695 pertsona bazterkeria eta pobrezia errealearen arriskuan zeuden. Datu hori 2008koarekin alderatuz gero, ohartuko gara % 16 hazi dela arriskuan dauden pertsonen kopurua; izan ere, 2008an 385.087 ziren (Eusko Jaurlaritza, 2020). Bestetik, Niño-Becerrak zioenarekin lotuz, oso esanguratsua da *working poor* gisa definitzen den fenomenoaren bilakaera azken urteetan; izan ere, soldatapeko langileen % 13 pobrea da, INEren datuen arabera (Alonso, 2020). Gazteen kasuan, aldiz, lanean ari direnen % 20,2 bazterkeria eta pobrezia errealearen arriskuan daude (Consejo de la Juventud de España, 2020). Foessa Fundazioak Euskadiko bazterkeriaren eta garapenaren inguruan egindako azken informearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren sektore pobreenak diru-sarreraren jaitsiera nabarmena pairatu du azken urteetan biztanleria aberatsenarekin alderatuta, baita Espainiako sektore txiroekin konparatuta ere. Zehazki, informean azpimarratzen da datu horren zergatia 2013-2017 urteen artean EAeko sektore pobreenen diru-sarrerak % 16 jaitsi izana dela, Espainiakoenak berdintsu mantendu zirelarik (Fundación Foessa, 2019).

Datu horiek biztanleriaren txirotzea eta, beraz, proletarizazioa agerian uzten duten arren, argi izan behar dugu proletarizazioa ez dela soilik esfera produktibo edo ekonomikora mugatzen; gure bizitzako esparru guztietan gertatzen ari den prozesu bat da, hainbat adierazpen dituen. Hainbat autorek diote ongizatearen eta bake sozialaren garaiak atzean geratu direla; azken urteetan, «gosea, pobrezia, etxerik gabe dauden familiak, lanik gabe dauden pertsonak edo lan-merkatuak pertsona horiek integratzeko dituen zailtasunak» ohiko fenomeno bilakatzen ari dira. Gainera, argi izan behar dugu azken urteetako krisia eta haren ondorioz sortutako arazoak ez direla, askok sinetsarazi nahi diguten bezala, gobernu baten edo bestearen «gestio txarra»-ren emaitza, kapitalismoaren kontraesanen ondorioa baizik (Maiso, 2016a).

Proletarizazio-prozesu hau, paradoxikoki, baliabide materialen oparotasuna inoiz ezagutu den handiena den garaian ari da gertatzen. Horrekin adierazi nahi nuke gaur egun inoiz baino baliabide gehiago eta aurreratuagoak daudela; esaterako, adimen artifiziala. Hala ere, errealitatea da teknologia-baliabide horiek ez direla gizarteko gehiengoaren ongizatea bermatzeko bideratzen. Ildo horretan, autore ugari azpimarratzen dute aurrekaririk gabeko modernizazio kapitalista honek ez dituela ongizatea eta aurrerapenak ekarri guztiontzat, baizik eta «orain arte konpondu gabeko kontraesan ekonomikoak» azaleratu dituela (Maiso, 2016a). Horri lotuta, gogora datorkit Nach raperoaren *Esclavos del destino* abestiaren sarrerako esaldia, *El gran dictador* filmetik hartua: «La tecnología que proporciona

abundancia nos ha dejado en la indigencia» (Nach, 2019). Keynesek zioen garapen teknologikoa gizartearen arazo ekonomiko nagusia konpontzeko erabili ostean, geroz eta lan gutxiago egiteko erabili beharko zela, denbora hori beste «eginbehar batzuetan» xahutu ahal izateko (Imaz, 2007). Marxek, ordea, John Stuart Mill filosofo britainiarrari erantzunez, hamarkada batzuk lehenago azpimarratu zuen kontuan izan behar dugula kapitalak sustatzen duen makineriaren helburua ez dela, hark zioen moduan, gizakien lana edo esfortzua arintzea. Marxen hitzetan, «plusbalioa handitzeko bitartekoa» da teknologia (Marx, 1979: 451).

5. Etxetik lanera, lanetik etxera

Ta horrela da bizitza esaten dute

Ez! Horrela da sistema: aldatu nahi nuke.

Zuk ez? Esan nork saldu nahi duen lan-indarra

Soldata baten truke?

Klasetik lanera, lanetik etxera ta gero jokura.

Jokutik kalera, kaletik etxera, nahi duten modura.

Ziakhus – Nahi duten modura

Ziakhus rap-ablesari gasteiztarraren *Nahi duten modura* abestiko hitzak dira horiek, burgesiak langile-klasearen bizitzaren gain duen kontrola salatzen dutenak. Bertan, ez zaie soilik, gerora ikusiko dugun bezala, soldatapean lanean igarotzen ditugun orduerik erreferentzia egiten, harreman sozial kapitalistek gure bizitza goitik behera zeharkatzen baitute. Hau da, soldatapeko lanaren abolizioaz hitz egitean, ezinbestean, sistema kapitalistaren gaindipenaz hitz egiten dugu. Lanaldiaren murrizketak ez du esan nahi, automatikoki, askeago bihurtuko garenik; Ziakhusek dioen bezala, gure «bizitzaren jabeak» berdinak izaten jarraituko dute, «sofa erosoan» telebista ikusten jarraituko dugu, «boto zikin bat» emango dugu urtea heltzean, gure lan-indarra salduko dugu «soldata baten truke»... (Ziakhus aka Zikuta, 2019)

Errejónek honakoa aipatzen zuen Diputatuen Kongresuan egindako hitzartze batean: «La vida no puede ser ir solo de casa al trabajo y del trabajo a casa» (Errejón, 2020). Noski, ados nago, ezin dugu bizitza horretara mugatu. Baina nire galdera honakoa da: Más País alderdiak proposatutako neurriek logika horrekin amaitzeko baldintzak sortuko dituzte? Hau da, soldatapeko lanera lotzen gaituzten kateak apurtzeko gaitasuna (eta pretentsioa) izango dute? Horrek, ordea, ez du esan nahi —beste modu batera planteatuz gero— gure bizitza soldatapeko lanaren esferatik at eraikitzeko grina pizteko balio ezin dezakeenik; Marxek zioen bezala, gure bizitza jarduera horiek amaitzean hasten baita (Marx, 1849). Solidaridad y Unidad de los Trabajadores sindikatuak, 2015eko otsailean *La Chispa Solidaria* aldizkarian idatzitako editorialean, azpimarratzen zuen ustez «librea» den denboraren zati handi bat «soldatapeko esklabu» izaten jarraitzeko «zeharkako lanera» bideratzen dugula. Horri, gainera, etxera «rallada» edo «nerbio» forman daramagun lana gehitu behar diogula aipatzen du sindikatuak (Solidaridad y Unidad de los Trabajadores, 2015).

Neurri berbera, aplikatzen den moduaren edo aplikatzen duenaren arabera, neurri iraultzailea edo erreakzionarioa izan daiteke, begirada batean diferentziarik antzeman ez dezakegun arren (El Salariado, 2021). Esaterako, 90eko hamarkadaren amaieran 35 orduko lan-astea aldarrikatzen zuten alderdi sozialdemokratak eta sindikatuak inperialismoaren «lekaio leial» gisa kalifikatu zituen PCRk (Partido Comunista Revolucionario) eta haiengan ezin zela «itsuki fidatu» adierazi zuen. Gainera, zenbait exigentzia egiten zituen, esaterako, lanegunaren murrizketak soldataren jaitsierarik edo lanaren intentsifikaziorik ez zezala ekar. Aipatzen genuen moduan, lanegunaren murrizketaren aldeko neurriek soldatapeko lanetik emantzipatzeko baldintzak sor ditzakete, planteatzen dugun moduaren arabera. Hau da, lanaldiaren murrizketa kontsumoa sustatzeko neurri moduan sal genezake edo, PCRk proposatzen zuen gisara, langileek denbora irabaz dezaten proletalgoaren askapenareko borroka iraultzaileari ekarpena egiteko (Partido Comunista Revolucionario, 1999).

6. Ondorioak: gutxiago lan egin ala soldatapeko lana gainditu?

Así pues, cuál es la crítica que se hace al capitalismo: ¿una distribución más equitativa de la riqueza que el proletariado produce como capital o la abolición del modo en que se produce esa riqueza para sustituirlo por otra forma? Esto nos conduce a otra pregunta, ¿se trata de realizarse en tanto que proletario o emanciparse de la condición proletaria?

Jorge Moruno – *Al menos tienes trabajo* (Prologoa)

Trabajar ocho horas diarias es una barbaridad en plan estar desde las ocho de la mañana hasta las cinco de la tarde todos los días durante 40 años podemos dejar de fingir que tiene algún puto sentido

Radix (@NombreFalso1231)

Galdera oso interesgarriak, dudarik gabe, *Al menos tienes trabajo* liburuaren prologoan Más Madrid alderdiko diputatu den Jorge Morunok (2019) egiten dituenak. Liburuan aurrera egin ahala, Puertasek behin eta berriz azaleratzen du honako kontraesana, «paperean oso sendoak diruditen teorien» eta «praktikan jartzeko ezintasunaren» artekoa. Beti topatzen dugun muga, haren hitzetan, «diruaren beharra» izaten da (Puertas, 2019).

Bestalde, kontuz ibili behar dela iruditzen zait. Izan ere, 40 ordutik 32 ordura igarotzearen ondorioz gure denboraren jabe izango garela edo gure bizi-kalitatea eta osasun mentala bat-batean hobetuko direla esatea ez zait zintzoa iruditzen. Zerbait aldatuko al da benetan gure bizitzetan? Ez ote dugu, Radix-ek txioan zioen bezala, gure bizi guztia lanean igaro beharko? (Radix, 2021). Argi dago gure bizitzak, oinarrian, berdin jarraituko duela. Gainera, kontuan izan behar dugu erreprodukzio sozialak paper garrantzitsua jokatzen duela kapitalarentzat, lan-indarra berritzeko eta bake soziala bermatzeko. Neurri hauen benetako xedea ez da biztanleriaren ongizatea bermatzea.

Erreproduktzio sozialak (famielarekin zein lagunekin denbora igarotzea, aisialdiko ekintzak egitea, kirola praktikatzea...) ahalbidetzen du astelehenean lanera indarrak berrituta iritsi eta berriro asteburuan pentsatzea. Oso esanguratsua da, alde horretatik, gisa honetako neurriak aplikatzen dituzten enpresek komunikabideetan ematen duten irudia; esaterako, Software DELSOL enpresako langileak, atsedendaldian zeuden bitartean, FIFA bideo-jokoan edo futbolinean jolasten agertu izan ohi dira telebistan. Prebentzio laboralerako kurtsoak edo mindfulness-saioak bezala, enpresak epe luzera egiten dituen inbertsioak dira horiek. Horrela, langileen egoera fisiko zein emozionala «hobetzeaz» gain, produktiboagoak izan daitezten, haien kontzientzia erabat neutralizatzen dute; izan ere, askoz ere zailagoa da gure lagun gisa aurkezten den *jefe guayari* aurre egitea tradizionalki ezagutu den nagusi autoritarioari baino (Tena, 2020).

Kutsu aurrerakoia dutela dirudien arren, Más País alderdiak eta beste hainbat eragile politikok aurkeztutako gisa horretako neurriek soldatapeko lanaren modernizazioa eta egokitzapena ekarriko dute, hau da, horien funtzioa kapitalaren berregituraketa ahalbidetzea izango litzateke. Modernizazio kapitalistan bete-betean murgilduta gauden garaiotan, beharrezkoa da «sozialismo iraultzailearen tradizioa» (Astarita, 2017a) berreskuratzea, hau da, lanaldi-murrizketaren eskaria esplotazioaren aurkako borrokan aurrerapauso soil gisa ulertzea, edo, hobeto esanda, aurrerapauso bat izan daitekeela, «ez baitira nahikoa» (Zetkin, 1899). Izan ere, horretarako ezinbesteko baldintza da estrategia orokor eta integral baten barnean kokatzea, estrategia sozialistan alegia. Errealitateak, ordea, erakusten digu hasiera batean, «aldarrikapen konkretuez haratago», langile-mugimenduak sozialismoa amaierako helburu gisa identifikatzen zuen arren, ez zuela denbora asko behar izan horri «uko egiteko» (Mattick, 1978).

Nire ikuspegitik, sozialismoaren helburua ez da, askok dioten moduan, *gutxiago lan egitea guztiok lan egiteko*, soldatapeko lanak gure egunerokotasunean duen zentralitatearekin amaitzea eta harreman sozial kapitalistak gaudituko dituen klaserik gabeko gizartea eraikitzea baizik. Bide horretan, noski, ezinbestekoa izango da hobekuntza gradualak lortzea. Betiere neurri horiek aurrez aipatutako helburuak gauzatzeko bitarteko moduan ulertu behar ditugu, indar-korrelazioa hobetzeko aurrerapauso gisa. Motzean esanda, bizi-baldintzak hobetzeko premiak eta sozialismoa eraikitzeko beharrak eskutik helduta joan behar dute.

7. Bibliografia

- ABC (2019ko ekainak 28): «Los sueldos bajan un 1,9% desde el inicio de la crisis mientras que el coste de la vida aumenta un 13,7%», ABC, <https://www.abc.es/economia/abci-sueldos-acumulan-descenso-19-por-ciento-desde-inicio-crisis-201906281220_noticia.html?ref=https%3A%2F%2Fwww.abc.es%2Feconomia%2Fabci-sueldos-acumulan-descenso-19-por-ciento-desde-inicio-crisis-201906281220_noticia.html> (Kontsulta: 2019-6-28).
- Alonso, N. (2020): «Alrededor del 13% de los trabajadores es pobre en España, y no uno de cada tres como dice Yolanda Díaz», *Newtral*, <<https://www.newtral.es/fact-check-trabajadores-pobres-espana-yolanda-diaz/20201222/>> (Kntsulta: 2020-12-22).

- Álvarez, Y. (2021): «Reducir la jornada para ensanchar el futuro», *El Salto*, 54, 4-9.
- Astarita, R. (2017a): «La lucha por las ocho horas de trabajo y la tradición socialista», *Rolando Astarita* [Blog], <<https://rolandoastarita.blog/2017/07/04/la-lucha-por-las-ocho-horas-de-trabajo-y-la-tradicion-socialista/>> (Kontsulta: 2017-7-4).
- , (2017b): «Francia, las 35 horas y desocupación», *Rolando Astarita* [Blog], <<https://rolandoastarita.blog/2017/07/08/francia-las-35-horas-y-desocupacion/>> (Kontsulta: 2017-7-8).
- , (2020): «Rosa Luxemburgo sobre salario y plusvalía relativa», *Rolando Astarita* [Blog], <<https://rolandoastarita.blog/2020/06/25/rosa-luxemburgo-sobre-salario-y-plusvalia-relativa/>> (Kontsulta: 2020-6-25).
- Babiker, S. (2021): «Sobre la batalla por el tiempo», *El Salto*, 54, 10-11.
- Bartolomé, M. (2021): «Inflazioa zer den eta norentzat den onuragarri», *Gedar*, <<https://gedar.eus/ikuspuntua/inflazioa-zer-den-eta-norentzat-den-onuragarri>>.
- Castillo, J. [@josecast23]. (2021eko maiatzak 10). *Berez, hau oso argi azaltzen du ekonomia politikoaren kritikak, produktibitate gutxiko ekonomietan, Greziarena kasu, plusbalio erlatiboak igotzeko mugak agerikoak dira eta burgesiak plusbalio absolutura jo behar du. Hau da, lanaldiaren desarautze eta luzatze zuzenera* [Tweet]. Twitter. <<https://twitter.com/josecast23/status/1390665738793402369?s=19>>
- Consejo de la Juventud de España. (2020): *Observatorio de Emancipación segundo semestre 2020*.
- Del Rosal, M. (2021): «Los jóvenes de hoy en día», *NR Periodismo alternativo*, <<https://nuevarevolucion.es/los-jovenes-de-hoy-en-dia/>>.
- Deutsche Welle (2021): «España pondrá a prueba la semana laboral de cuatro días», *Deutsche Welle*, <<https://www.dw.com/es/espaa%3%B1a-pondr%C3%A1-a-prueba-la-semana-laboral-de-cuatro-d%C3%ADas/a-56877285>> (Kontsulta: 2021-3-15).
- Ecologistas en Acción (2021a): «Trabajar menos para trabajar todas y decrecer mejor», *Ecologistas en acción*, <<https://www.ecologistasenaccion.org/168274/trabajar-menos-para-trabajar-todas-y-decrecer-mejor/>> (Kontsulta: 2021-4-20).
- , (2021b): «1º de Mayo: reducir y repartir para vivir», *Ecologistas en acción*, <<https://www.ecologistasenaccion.org/169587/1o-de-mayo-reducir-y-repartir-para-vivir/>> (Kontsulta: 2021-5-1).
- El Economista (2021): «El Gobierno aplaza a 2022 la jornada laboral de cuatro días que propone Errejón», *El economista*, <<https://www.eleconomista.es/economia/noticias/11144485/04/21/El-Gobierno-aplaza-a-2022-la-reduccion-de-jornada-que-propone-Errejon.html>> (Kontsulta: 2021-4-7).
- El Salarido [@ElSalarido]. (2021eko ekainak 1). *Como pasa con todo, si la reducción de la jornada la impone el proletariado mediante la lucha, es una medida revolucionaria. Si la impone el Estado capitalista, es decir, la burguesía, es una medida reaccionaria* [Tweet]. Twitter. <<https://twitter.com/ElSalarido/status/1399621349337882626?s=20>>
- Errejón, Í. [@ierrejon]. (2020ko abenduak 1). *Por qué la jornada laboral de cuatro días es buena para la salud, la economía y el planeta* [Tweet]. Twitter. <<https://twitter.com/ierrejon/status/1333806474120863749?s=20>>
- Eusko Jaurlaritz (2020): *Behar Sozialer buruzko Inkesta 2018*, <https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/_epds_2018/eu_epds2012/data/2018ko%20PGDI_Txostena.pdf>.
- Fernández, J. (2021): «“No tengo tiempo para nada”: cuando la vida es una carrera endiablada a contrarreloj», *El periódico*, <<https://www.elperiodico.com/es/cuaderno/20210403/tiempo-vivir-contrarreloj-11624712>>.

- Fundación Foessa (2019): *Informe sobre exclusión y desarrollo social en el País Vasco*, <https://bidesari.org/wp-content/uploads/2020/03/Informe-Foessa-Euskadi_cas.pdf>.
- García, I. (2016): «Berdintasunaren bidean: 35 ordu eta 1.200 euro», *LAB*, <<https://www.lab.eus/es/berdintasunaren-bidean-35-ordu-eta-1200-euro/>> (Kontsulta: 2016-3-4).
- Gil, I. (2021): «El Gobierno pacta con Más País llevar a los PGE el plan para la semana laboral de 32 h», *El Confidencial*, <https://www.elconfidencial.com/espana/2021-07-21/gobierno-mas-pais-presupuestos-semana-laboral-cuatro-dias_3193535/?utm_source=twitter&utm_medium=social&utm_campaign=ECDiarioManual> (Kontsulta: 2021-7-21).
- Heinrich, M. (2018): *Crítica de la economía política: Una introducción a El Capital de Marx*, Escolar y Mayo Editores S.L.
- Imaz, J.I. (2007): «La reducción del tiempo de trabajo en el País Vasco, 1995-2005», *Revista Española de Sociología*, 8, 173-191.
- Jappe, A. (2018): *La teoría crítica del valor*, <<https://disonancia.pe/2018/04/16/la-teoria-critica-del-valor/>>.
- Jódar, P. (2021): «Trabajar menos para trabajar todos. Lavorare meno, lavorare tutti. Travailler moins pour vivre mieux. Una ojeada a las propuestas del pasado», *Pasos a la izquierda*, <<https://pasosalaizquierda.com/trabajar-menos-para-trabajar-todos-lavorare-meno-lavorare-tutti-travailler-moins-pour-vivre-mieux-una-ojeada-a-las-propuestas-del-pasado/>>.
- Kolitzka. (2020): «*Aurrekaririk gabeko krisi baten gaineko apunte ekonomikoak*», *Arteka*, 7, 10-25.
- León, J. (2018): «Más allá del derecho al trabajo: ética del trabajo y sociedades tecnológicas», *El salto*, <<https://www.elsaltodiario.com/el-rumor-de-las-multitudes/mas-alla-del-derecho-al-trabajo-etica-del-trabajo-y-sociedades-tecnologicas>>.
- Luxemburgo, R. (1974): *Introducción a la economía política*, Siglo XXI de España Editores, S.A.
- Magro, I. (2021): «1.400 euroko gutxieneko soldata eta 30 orduko lanaldia dira LABen helmuga berriak», *Berria*, <<https://www.berria.eus/albisteak/193747/1400-euroko-gutxieneko-soldata-eta-30-orduko-lanaldia-dira-laben-helmuga-berriak.htm>> (Kontsulta: 2021-2-16).
- Maiso, J. (2016a): «Crisis del capitalismo y precarización de la existencia: algunas coordenadas para la crítica ante la nueva barbarie», in P. Álvarez-Blanco eta A. Gómez (argtz.), *La imaginación hipotecada. Aportaciones al debate sobre la precariedad del presente*, Libros en acción.
- , (2016b): «*El nuevo rostro del capital mundial: El análisis del capitalismo mundializado en la crítica del valor de Robert Kurz*», *Nombres, Revista de Filosofía*, 30, 123-156.
- Marx, K. (1849): *Trabajo asalariado y capital*, <<https://www.marxists.org/espanol/m-e/1840s/49-trab2.htm>>.
- , (1979). *El Capital. Crítica de la economía política. Libro primero. El proceso de circulación del capital, II*. Siglo XXI de España Editores, S.A.
- Más País [@MasPais_Es]. (2021eko otsailak 2). *Quienes se opusieron hace 100 años a la jornada de 40h se oponen hoy a las 32h: los que quieren que nada avance. Es un síntoma de que es una medida de futuro para la conciliación, la salud y el medio ambiente. Hoy @ierrejon* [Tweet]. Twitter. https://twitter.com/MasPais_Es/status/1356575269394481155?s=20
- Mattick, P. (1978): *Integración capitalista y ruptura obrera*, Editorial Laia.
- Mélis, J.B. (1937): «Los sindicatos obreros y el estado capitalista», *Communisme*, 5.

- Moruno, J. (2019): «Prólogo», in N. Puertas (argtz.), *Al menos tienes trabajo*, Antipersona.
- Nach (2019ko maiatzak 20). *Esclavos Del Destino* [Video]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=-8Vzbhgk-7k>
- Niño-Becerra, S. (2019): «El fin del ascensor social», [sninobecerra.com](https://sninobecerra.com/el-fin-del-ascensor-social/), <<https://sninobecerra.com/el-fin-del-ascensor-social/>> (2019-10-15).
- , [@sninobecerra]. (2020ko uztailak 11). *1. Terrible, pero LA razón última se calla: la demanda de trabajo es inferior a la oferta: sobra población activa porque cada vez son necesarias menos horas de trabajo, y cada vez serán necesarias menos. Se ha estado haciendo un supuesto falso: que la demanda de trabajo iba ser.* [Tweet]. Twitter. <https://twitter.com/sninobecerra/status/1281882878910103552?s=20>
- Partido Comunista Revolucionario (1999): «¡Por la reducción de la jornada laboral, hacia la emancipación del trabajo!», *La Forja*, 18, 60.
- Puertas, N. (2019): *Al menos tienes trabajo*, Antipersona.
- Radix [@NombreFalso1231]. (2021eko uztailak 16). *Trabajar ocho horas diarias es una barbaridad en plan estar desde las ocho de la mañana hasta las cinco de la tarde todos los días durante 40 años podemos dejar de fingir que tiene algún puto sentido.* [Tweet]. Twitter. <https://twitter.com/TrabajarMenos/status/1417809705532002309>
- Recio, A. (2018): «¿Vuelve el fin del trabajo?», *Mientras tanto*, <<http://www.mientrastanto.org/boletin-172/notas/vuelve-el-fin-del-trabajo>>.
- Riesco-Sanz, A. (2012): «Enpresas sin asalariados y asalariados sin empresas: apuntes sobre la crisis y transformación del empleo», *Lan Harremanak*, 27, 134-148.
- Rivas, L. (2010): «El doble origen del 1º de mayo. La celebración del primer 1º de mayo en España», in Fundación L. Rivas, A. Herrerín eta J. Babiano (argtz.), *1890-2010. El primero de mayo en España. 120 aniversario*, Fundación 1º de Mayo.
- Sabata, O. (2021): «Huelga en Grecia contra la jornada laboral de 10 horas», *Nueva Revolución*, <<https://nuevarevolucion.es/huelga-en-grecia-contra-la-jornada-laboral-de-10-horas/>> (2021-5-7).
- Solidaridad y Unidad de los Trabajadores (2015): «¡Por la reducción drástica de las jornadas de trabajo hacia la abolición del trabajo asalariado!», *La Chispa Solidaria*, 12, 1-3.
- Tejero, H. (2021): «“La propuesta de una semana de 32 horas ha servido para introducir un debate cultural mucho más amplio”, Entrevista a Héctor Tejero», *sinpermiso*, <<https://www.sinpermiso.info/textos/la-propuesta-de-una-semana-de-32-horas-ha-servido-para-introducir-un-debate-cultural-mucho-mas>>.
- Tena, A. [@tenaeiz]. (2020ko uztailak 11). *Pasa den asteko zenbait albistegi ireki zituen aurreko udan Finlandiako Lehen Ministrak egindako proposamen batek. Zehazki, asteko lanaldia lau egunetara murriztea planteatzen zuen Sanna Marin-ek. Hala ere, Gobernuak adierazi zuen aurrera eramateko planik ez dagoela oraingoz.* [Tweet]. Twitter. <https://twitter.com/tenaeiz/status/1216457110176878595>
- Tringali, G. (2020): «Santiago Niño Becerra: “El sistema capitalista se está agotando”», *ABC*, <https://www.abc.es/economia/abci-santiago-nino-becerra-sistema-capitalista-esta-agotando-202011241706_noticia.html> (Kontsulta: 2020-11-24).
- Vela, C. (2021): *Capitalismo patológico*, Kaxilda.
- Viñas, J. (2018): «El peso de los salarios sobre el PIB cae a su nivel más bajo desde 1989», *El País*, <https://cincodias.elpais.com/cincodias/2018/03/09/midiner/1520613690_542389.html> (2018-3-12).
- Zetkin, C. (1899): *La Fiesta Internacional de los Obreros*, <<http://grupgerminal.org/?q=system/files/1899-05-01-1mayo-zetkin.pdf>>.
- Ziakhus aka Zikuta. (2019ko martxoak 11). *Ziakhus - Nahi duten modura #AsteroideBatzuk* [Video]. Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=HD_5l-Fc_CO

